

16

ZU IZAN EZIK

Askotan entzun eta ikusten dira azken urteotan honelakoak:

Autobusak eta taxiak ezik.

Zuri ezik, gainerako guztiei bidali diet txostena.

Esan behar da, hala ere, 'izen sintagma r izan ezik' dela autore gehienek erabiltzen dutena:

"Isabelek, aoz izan ezik, zuka itz egin bear izaten zion aizpari".

"Teologia izan ezik, beste eledergai guztiak agertu, ikertu..."

"Errira polbora-billa zoazenean izan ezik, ondo gordeta zaudeke an".

Izan ezik-en ezkerrean doan sintagmak dagokion kasu marka hartu ohi du: herri horretan izan ezik, zuri izan ezik, igandeetan izan ezik, e.a. Salbuespena, batzuetan, ergatiboarekin egiten dela dirudi, behin baino gehiagotan aurkitzen baita absolutiboan izan ezik-en aurreko sintagma, nahiz ondokoa ergatiboan joan:

Bera izan ezik, ezin zuan inork hitz egin errosarioa bukatu arte (Oskillaso).

Orixo egingo eban zu izan ezik beste edozeiñek (Tx. Agirre).

Baina askotan ergatiboa jartzen da, jakina:

Horixe egingo luke, zuk izan ezik, beste edozeinek.

Horrenbestez, hauxe da Euskaltzaindiak gomendatzen duena:

Erabil bedi formula osoa, *izan ezik*, eta ez *ezik* bakarrik, eta aurreko sintagmak har beza dagokion kasu marka. Nolanahi ere, ergatiboaren kasuan zilegi da absolutibo kasua erabiltzea.

Oharra: *Izan ezik* horrek ez ditu agortzen, zernahi gisaz, *ezik-en* beste erabilera batzuk.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)